



MONDRAGON

GIZATASUNA
LANEAN

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza

MONDRAGON

Fundazioa 2021



**“Lankidetza da gure
indarrak biderkatzen
dituen palanka”**

Arizmendiarieta (1915-1976)

MONDRAGON Fundazioaren xedea	3
2021eko laburpena	4
Hezkuntzarekiko konpromisoa	6
Jarduera berrien sustapena	7
Berrikuntzari bultzada	8
Negozioei laguntza	9
Beste ekimen batzuk	10
Kontuak	11
Eginiko eragiketen adibideak	12

MONDRAGON

Fundazioaren **xedea**

MONDRAGON Fundazioak gizarte ekonomia sustatzen dihardu, eta, bereziki, erakunde kooperatiboak eta kooperatibekin lotutako beste erakunde batzuk sustatzen ditu.

1994an eratu zen erakunde honek baliabideak bideratzen ditu gizarte ekonomiaren, hezkuntzaren eta ikerketaren garapena sustatzeko, modu zuzenean edo zeharka, eta hori guztia gizartea arian-arian eraldatzeko.

Bere dimentsioaz jabetzeko, Fundazioak bere 25 urteko historian zehar 490 milioi euro baino gehiago kudeatu duela azpimarratu behar da. ●



MONDRAGON Fundazioak MONDRAGONeko kooperatiba kideen esfortzuari esker garatzen du bere jarduera; izan ere, kooperatiba kideek beren urteko emaitzen zati bat Fundaziora bideratzen dute.

2021eko laburpena

Aurten ere MONDRAGON Fundazioak bere izateko konpromisoari eutsi dio: eraldaketa soziala, gure ingurunearen garapen sozioekonomikoari laguntzen dioten proiektuak inplementatuz.

Eta hori guztia funtsezko printzipiotzat elkartasuna hartuta: gure kooperatiben eta, oro har, MONDRAGONen errealitatean irmoen errotutako oinarrietako bat. Ildo horretan, MONDRAGONek eta kooperatibek koronabirusari aurre egiteko eta covid-19ak negozioetan eta gizartean eragindako inpaktua minimizatzen saiatzeko erakutsi duten inplikazioa azpimarratu behar da berriro ere. ●

Jarduera eremuak

- Hezkuntza sustapena eta prestakuntza soziokooperatiboa.
- Negozioei laguntza.
- Jarduera berrien sustapena.
- Berrikuntza aplikatuan elkarren arteko lankidetzaren sustatzea.
- Proiektuak finkatzen laguntzea.
- Ekimen soziokulturalak.

2021an, MONDRAGON Fundazioak arlo horiei guztiei 12,3 milioi euroko ekarpena egin die, memoria honetan jaso den bezala. Baliabideen %85 hezkuntza sustapenera eta prestakuntza sozio-kooperatibora bideratu dela ere nabarmendu behar da, kooperatiben negozioak indartzeko laguntza solidarioarekin batera.




MONDRAGON Fundazioa erabakigarria izan da gure esperientzia kooperatiboa, eta gizartea orokorrean, garatzen laguntzeko; izan ere, 2021eko ekitaldian 18,8 milioi milioi euroko ekarpenak kudeatu ditu.

Baliabideen helburua milioi €


	Hezkuntza	3,3	%26,6
	Jarduera berriak	1,2	%9,7
	Berrikuntza	0,7	%5,6
	Negozioei laguntza	6,5	%53,2
	Bestelakoak	0,6	%4,9

MONDRAGON Fundazioak 2021ean aplikatutako baliabideen %80 inguru hezkuntzara eta zailtasunak dituzten kooperatibei laguntza solidarioa ematera bideratu ziren. Eta %15 baino gehiago berrikuntza eta jarduera berrien sustapenari lotutako gaiak laguntzera.

Guztira **12,3**



Erabilitako baliabideak 2017-2021



Hezkuntzarekiko konpromisoa

M ONDRAGON Fundazioak hezkuntzarekin duen konpromisoa konstante bat izan da sortu zenetik. Bere erreferentziazko jardutekoa izan da eta ikastetxeei beren prestakuntza eskaintza etengabe hobetzen lagundu die.

Azken bosturtekoan bakarrik, Fundazioak xede horretarako jarri dituen baliabideak 23,8 milioi eurokoak izan dira. ●




MONDRAGONen hezkuntza sarea

- Mondragon Unibertsitatea, 12 egoitza
- Arizmendi Ikastola, 12 ikastetxe
- Txorierri, 1
- Lea Artibai, 1
- Otalora, 1

+9.000 ikasle **27** ikastetxe **16** master **29** heziketa ziklo

Ekarpena heziketari

23,8 milioi €



Jarduera berrien sustapena

Fundazioak konpromisoa hartua du, baita ere, sustapen erakunde guztiak integratu eta koordinatuko dituen ekosistema bat sortzearen aldeko apustu korporatiboarekin, erakundeok elkarren artean interakzioan jarduteko eta ezagutza zein esperientziak partekatzeko. Azken finean, kontua da ekintzaitzarako ekosistema berritzaile eta dinamiko bat eraikitzea, negozioak etengabe berritzeko eta jarduera berriak sortzeko.

MONDRAGON Fundazioak jarduera berriak abiarazteko 2021ean egindako ekarpena milioi bat eurotik gorakoa izan zen. ●



Lankidetza beste erakunde batzuekin

- MONDRAGON Sustapen Zentroa
- MONDRAGON Sustapen Funtsa
- Garaia parke teknologikoa
- Saiolan

Etorkizun oparoko negozioak

Osagai teknologiko nabarmena duten *start-up*ak, eta horien artean, sentorizazioan, hari gabeko trazabilitatean, digitalizazioan eta 4.0 industrian espezializatutakoak, energia berdearen eta osasunaren arloko lankidetza proiektuak sustatzeaz gain.

Ekarpena jarduera berrietara

6,7 milioi €



Berrikuntzari bultzada

Berrikuntzak MONDRAGONen enpresa sarearen lehiakortasuna eta eraldaketa sustatzen du. Fundazioak politika sozioenpresarialarekin lotutako ekimenak babesten ditu, batez ere digitalizazioaren eta ingurumen iraunkortasunaren esparruekin lotutakoak.

MONDRAGON Fundazioak Berrikuntzaren alorrari ekarpena interkooperazioko ondoko egitasmoak babesten dituen Zientzia eta Teknologia Planari esker egiten dio:

- Garapen teknologikoa (fabrikazio aurreratua, MP arindura, energia efizientzia...).
- IBAT ezagutza sortzea (adimen artifiziala, deskarbonizazioa...).
- I+Grako laguntza eta sustapena (digitalizazio estrategiak, ingurumen inpaktua murriztea...).
- Digitalizaziorako pilotu berritzaileak (fabrikazio aditiboa, intralogistika, datuen plataforma...). ●




+180 M€ I+G inbertsioetan
+2.000 ikertzaile lanaldi osoan
+500 patente familia indarrean
14 I+G zentro

CIKATEK	CS CENTRO STIRLING	EDERTEK	
FAGOR AOTEK	IDEKO	IKERLAN	
LORTEK	ISEA	KONIKER	LEARTIKER
MTC	MIK MGEP	ORONA EIC	UPTC

Ekarpena berrikuntzari

5,6 milioi €



Negozioei laguntza

M ONDRAGON Fundazioak partida handia bideratzen du urtero negozioak, bereziki zailtasunak dituztenak, sendotzeko. 2020an, esaterako, 6,6 milioi eurotik gora.

Elkartasun arduratsua

MONDRAGON Fundazioaren bitartez, zailtasun puntualak gaitzitzen eta bestela garatu ezingo liratekeen enpresa proiektu baliotsuak garatzen laguntzen duen elkartasuna inplementatzen da. ●



44 milioi baino gehiago 5 urtean

Kooperatiba arteko elkartasuna, berez, sentitzen eta praktikan jartzen den balioa da MONDRAGONen. Askotariko arazoak direla-eta zailtasunak izan dituzten kooperatibei laguntzeko xedez, MONDRAGON Fundazioak 44 milioi euro baino gehiago bideratu ditu azken bost urteetan.



Ekarpina negozioei laguntzeko

44 milioi €

16,7

2017

6,2

2018

6,8

2019

7,7

2020

6,6

2021

Beste ekimen batzuk

MONDRAGON Fundazioak garapen bidean dauden komunitateei laguntzeko beste jarduera batzuk ere egiten ditu, Mundukide GKEaren bidez. Mundukide GKEaren jarduera gune nagusiak Mozambiken, Etioipian, Brasilen, Kolonbian eta Ekuadorren daude. Bestetik, euskal kultura sustatzeko ere bideratzen ditu baliabideak.

Beste urte batez, Gaztenpresa Fundazioarekin lankidetzan aritu gara. Fundazio horrek Euskadin eta Nafarroan enpresak sortuz enplegua sustatzeko lan egiten du. Hasieratik bertatik, 9.000 lanpostu sortzen lagundu du.

Era berean, garrantzitsua da Fundazioak gure kolektiboetan euskara sustatu eta normalizatzeko historikoki egin duen ekarpena, ia 2 milioi eurekin. ●



Beste ekimen batzuk milioika €-tan

	2017	2018	2019	2020	2021	Guztira
Gaztenpresa	119	157	295	331	285	1.187
Euskal kulturaren sustapena	80	108	148	165	143	644
Mundukide	80	108	148	165	143	644
Humanity at Music		200	150	-	-	350

Kontuak

M ONDRAGON Fundazioak men egiten dio EAEko Fundazioei buruzko 9/2016 Legean xedatzen den finantza informazioaren arau esparruari. MONDRAGON Fundazioaren urteko kontuak LKS Auditores SLPk ikuskatu ditu, eta LKSk egin duen txostenean, aldeko iritzia eman du.

Ondare garbia 55 milioi eurokoa da, eta emaitzen kontuak 6,6 milioi euroko urteko emaitza positiboa eman du. ●




Balantzea milioika €-tan

	Aktiboa	Pasiboa
Ibilgetua eta I+Gko zentroetako partaidetzak	22	
Eskudirua eta kobratzeko kontuak	45	
Ondare garbia		55
Zorrak eta ordaindu beharreko kontuak		12
Guztira	67	67

Emaitzen kontua milioika €-tan

Jasotako dirulaguntzak eta sarrerak	18,9
Emandako laguntzak	(12,1)
Bestelako zuzkidurak	(0,2)
Ekitaldiaren emaitza	6,6



Ekintzailletza ekosistema eraginkorragoa

Duela bost urte MONDRAGONek bere enpresa sustapen korporatiboaren eredua eraldatzea erabaki zuen, ikuspegia eta jarduera sektoreak zabaltzeko. Sistema eraginkorragoa sortu nahi zen, dauden negozioak berrituz eta berriak sortuz, kooperatiben kokapen lehiakorra hobetuz.

Oinarri teknologikoko apustua

Eta, dinamika berri horren bueltan, hasierako faseetan diren proiektuetan taldeko kooperatibek arrisku handiagoak hartzeko, arrisku kapital korporatiboko funtsak bideratu dira azken bost urteotan. Bost urte horien inguruan egindako balantzearen arabera, oinarri teknologikoko hamabost startup ingurutan hartu da parte, eta horrek, guztira, 7 milioi euro


inguruko inbertsioa ekarri du. MONDRAGONeko kooperatibak, sortu berri diren arrisku kapitaleko funts korporatiboetan oinarrituta, enpresa berri horien kapitalean inplikatu dira. Enpresa horiek sektore ezberdinetakoak dira, besteak beste, konputazio kuantikoa, pertsonen zaintzari lotutako zerbitzuak, lagin biologikoen zaintza, zibersegurtasuna eta 3D inprimaketa. ●



Polimeroak osasunaren zerbitzura

Leartikerrek osasun sektorearen aldeko apustu estrategikoa sendotu du, eta giza ehun bioartifizialak sortzeko gai den 3D inprimagailuaren garapena egingo du, Cardioprint Europako proiektuaren esparruan.

Leartikerreko Osasun ikertzaileen taldea, halaber, ehunen ingeniaritza eta fabrikazio aditiboko teknologiak uztartzen dituzten Europako beste bi proiektutan murgilduta dago: Cardiopatch –miokardioko bihotzekoa tratatzeko bide berriak ireki nahi ditu, eta pazienteen bizi kalitatea hobetuko duten soluzioak eman–, eta LGMed –gailu medikoen 4 prototipo garatzeko–. ●



Dorleta eraikinaren birmoldaketa, Huhezin (Mondragon Unibertsitatea)

2

2020/2021 ikasturtea Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko instalazio berrietan eskaini zen lehen aldiz. Dorleta eraikina birmoldatuta eta handituta, sorkuntza, esperimentazio eta ikerketarako espazio berriak sortu ziren. Horretarako, barrualdea berritu egin zen (jatorrizko eraikina 1976an eraiki zen) eta espazio berriak sortu ziren fatxadan eraikitako eranskinari esker. Gainera, 1.800 metro koadroko oinplanoa duen lokal berria eraiki zen eraikinaren ondoan, eta ingurua birmoldatu egin zen.

Proiektuak 6 milioiko inbertsioa izan zuen eta BEAU 2021 Espainiako Arkitektura eta Hirigintza Bienala lehiaketa irabazi zuen. Eraikina Mondragon Unibertsitatearen Eskoriatzako campusean dago, eta lehiaketa horretako iazko edizioako 20 arkitektura lan onenetako bat izan zen. ●



MONDRAGON eta euskara

MONDRAGON Fundazioak euskal kulturaren sustapena ere babesten du, hainbat programa eta kultur ekitalditan parte hartuz. Halaber, euskararen erabilera normalizatzeko helburuarekin, euskara lan eremuan garatzeko inplikatzeko da. Duela urte askotatik ari da lanean, eta aurten beste pizgarri bat jaso du: Fagor Taldeak Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2021eko Abbadia Saria lortu du, alegia, euskararen erabilera sustatzeko hamarkadetan egindako lanaren aitoren kolektiboa. Bestetik, MONDRAGONeko kooperatibek 80 kilometro baino gehiago erosi zituzten Korrikaren azken edizioan, euskararen normalizazioa jai giroan aldarrikatzen duen ekimenari diru ekarpenak eginez. Eta, azkenik,



MONDRAGONeko 60 kooperatibak euskara planak dituzte euskara lan eremuan modu naturalean erabiltzea bermatzeko. ●





// Entitate kooperatiboek aurrerapenari,
garapenari eta ordena sozial berri bati lotutako
elementuak izan behar dute”.

Arizmendiarieta (1915-1976)